

zuen bere lana bete, eta segurtasun konpainia bateko langilea hil zen. Beren gizonetako bat kartzelara bidali baino lehen, Banak, Szanek eta Jimbak beren gain hartu zuten erantzukizuna.

Lapurreta denaren oinarrian

«Gure karrera hasi genuen ez genuelako alderik ikusten egiten ari ginaren eta hainbatek herrialdean zehar egiten dutenaren artean. Gure bizitzako alderdi orotan –politikan, merkataritzan, edozein lanbidetan– lapurreta dago oinarrian. Horrela izan da denbora luzez. Antzina, gure arbasoek gauza txikiengatik esklabo saldu zituzten beren herrikideak: beira aleak, ispiluak, alcohola, tabakoa. Gaur egun, leloa bera da, baina orain objektuak autoak, irratia eta kontu korronteak dira. Beste ezer ez da aldatu, eta ezer ez da aldatuko etorkizunearan. Baina hori bihar ostean biziko direnean arazoa da».

Banak ez die herrarik exekutatuko dutenei. «Bizitza kenduko diguten gizon beraiek gure gorpuak soketatik askatu eta kamioneta batera botako dituzte eta hiloti komun batera eramane. Egiteko nazkagarria izan behar du horrek. Nik neuk ez nuke milioi bat dolarrengatik ere egingo. Gizon miserable batzuek egingo lukete hil amaierako soldata miserablearen truke... Eroskeriarekin borobildu beharko dute soldata, gorputz eta arima batera mantendu nahi izanez gero. Zinez diot, pena diet... Ordu bete edo bi ordu barru hilko naizen modua ez da kezkatzeko modukoa. Konpainia onean nago. Gure historiako liburuetan nire izena jasota geratuko da. Indarkeriari, hilketei, bizitzarekiko mespretxuari buruzko historia. Mina eragiteko plazerasadismoa. Hori ote da hitza? Gustura utziko dudan mundu bat da. Ez, ordea, epitaforik gabe».

Gogoan du txikitik egunkarian Afrikako buruzagi bati buruzko albistea irakurri zuela, nola hildako teniente baten hiloti aurrean, malkoak masailtan behera, esan zuen: «Afrikak bere semeak hiltzen ditu». Hortik bere epitafoia: «Afrikak bere eguzkia hil du».

Azaroaren 10ean hogeiei urte bete ziren Ken Saro-Wiwa egile eta aktibista eta Ogoni komunitateko zortzi lagun guaiaren erdian esnaraizi eta Nigeriako kartzela bateko patioan urkatu zituztela Shell petrolijo konpainiaren kontrako kampanian parte hartzeagatik. *Africa Kills Her Sun* (Afrikak bere eguzkia hil du) ipuina bere hilketa jazo baino sei urte lehenago argitaratu zuen.

Montale 'infinito'

Alex Gurrutxaga

Eugenio Montale (1896-1981) XX. mendeko italiar poesiaren goien graduari dago, Ungaretti, Saba edo Quasimodorekin batera. Are gehiago, poesia modernoan, oro har, izen handia da Montalere (Nobel Saria 1975ean). Hala ere, euskal literaturaz ez da iritsi haren oihartzun handirik, eta Munduko Poesia Kaierak bildumarako Anjel Lertxundik itzultitako hauxe da Montalere poesiaren lehen agerpen sendoa.

Poeta zorroztatu zen Montale: ez dauka obra bereziki ugaria, baina erabat zaindua da, fin-fin lantzen baitzuen poemaren ertz oro. «Poeta izatea ez da meritua», idatzi zuen, «berezko bizio bat baizik ez da. Beldurrez eramaten den zama».

Bi aro nagusi bereizten dituzte adituek Montalere obran. Lehen, laudatuena, hermetismoan kokatzen da: kutsu filosofikoko poesia da, metafisikoa maiz, eta

zentzua modu itxian aurkezten du. Garai horretakoak dira Montalere *Txibia-hezurra* (1925) edo *Ekaitza eta beste* (1956). Lehen poemategiek batasun handia dute, baina irakurlearentzat itxi samarrak ere badira. Sintaxia konplikatu da, menpeko perpaus luzeekiko, eta lexikoa ere ez da nolana hinkoa, erlazio se-



'Munduko poesia Kaierak. Eugenio Montale'

Egilea: Eugenio Montale. Itzultzailea: Anjel Lertxundi. Argitaletxea: Susa.

mantiko zainduetan loratzen baita. 1971n, *Satura* poemategiak (nolabait, aniztasuna eta satira) mugari bat jarri zuen poetaren ibilbidean. Orduz gero haren poesia ez da hain tapitua, narratibogoa da, eta adierazagoa ere bai. Antologia honetan, poema gehienak bigarren fase horretakoak dira.

Gazterik azaleratu zen Montalere gogoeta eta bakardaderako joera, eta poesian islatu zuen «*male di vivere*» delakoa, *An-necyren lakua* bezalako poemetan. Askotan ihesbide bakarra «zu» femenino batek gorputzen du; honela idazten du *Xenia*-n: «Zure hitz hain baldar eta zuhurtasun gutxiakoa da/ orain asetzen nauen bakarra». Iruditeria aberats eta sentikorra sortzen du poetak: ludiaren behaketa plazer hartzen du, eta itsasoaren zakarkeria eta limoiaren usaina hunkigarri zaizkio. Baina modernista gehienek bezala, behera behar du, «hiri zalapartari»-ra, nondik zerua ez den puskaka baizik ikusten.

Montale musikan aditua zen, eta poesiari buruz bat etorriko zen Verlainerekin: «*De la musique avant toute chose*». Hitzen musika lortu nahi zuen, edo, bere

hitzetan, musika hitzez egina. Ez da harriztekoa, beraz, metrika, errima eta hoskidetasuna oso zainduak izatea; halaxe, adibidez, *Euria ari du* poemaren tanta-ka bezala doa, edukiaren eta formaren zentzuak uztartuz.

Lertxundiren itzulpena ona da ene ustez. Metrikari eta errimari uko egin behar izan die (nola egin bestela?), baina Montalere poesiak bezala, itzulpenak ere badauka aire klasiko eta hertsi bat (hala sintaxian nola lexikoan), eta horrela behar du nirekiko. Balio-kidetza eta musikaltasuna lortzeko ahalegina ere sumatzen ahal da; adibide bat: jatorrizko «*la luce s'ifa avara, amara l'anima*» bilakatu da «argia da bihurtzen zikoitza, mingoitza arima». Besteak beste, *Mediterranea* poema antologikoaren itzulpena azpimarra daiteke.

Montalere poesia konplexua bezain aberatsa da, formalki oso landua. Poetak berak esana da: «Poesian funtsa ez du edukialk/baizik Formak». Eta irakurleak sumatzen du gaiaren eta formaren oreka justua, poemaren batasuna eta indarra, hitzez hitz osatzen den mundu poetikoaren sendotasuna: mundu ia mugagabea...

Aitona-amonen txera

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu hau gozoa da. Gozok direlako aitona-amonak ilobekin, eta gozok haien harremanak. Amona izateko adinean dagoen idazleak, bada, aitona eta iloba bati buruz idatzi du, berak gehien maite dituenak esateko: zein ederra den natura, zein ederra haurtzarora, zein ederra Galiziako herrixkak, eta, era berean, zein ederra den haurtzarora.

Galiziako goi mendietan dagoen O Cebreiro herrian kokatzen da istorioa, alaba, aitona eta gurasoak dituen etxe batean. Negu elurtsua da, eta bideak etenda geratzen dira maiz. Eduarda protagonistaren urte-

betetze eguna iritsi da, baina bere oparia ez, eta aitona irudimenarekin estaliko du gurasoen ezintasuna: opari berezi bat egingo dio.

Kontakizunak beste sorpresa batzuk gordeko dizkio Eduardi (Eduardaren izengoitia), eta baita irakurleari ere.



'Eduaren koaderno'

Idazlea: Helena Villar Janeiro. Ilustratzailea: Carmen Queralt. Itzultzailea: Garbiñe Ugarte. Argitaletxea: Sushi Books.

Jakin-mina

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Bide batez esanda, ironia handiarekin jarritako abizena da Certitude, (frantsesez, *ziurtasun*) ezen obratxo honen haria Catherine aitaren jardunari buruz duen ziurgabetasuna da.

Bai, ez da kasualitate Sempel liburu hasierako Parisen «Hotel Gloria» marratzea, eta amaierako New Yorken «Gloria Hotel». Ilustratzailea idazlearekin bat eginda dator igaro den denbora ezdeusa dela azpimarratzera: hainbeste urte, eta zer aldatu da Catherinerekin bizitzan, zer daki bere aitaz? Zertan aurreratu du munduak?

Iduri lukeen arren, ez da mezu pesimista bat zabaltzeko aitzakia, aitzitik bai ezartzeko ideia den bororaren igarotzearen gainean, zeinetan zalantzan jartzen

den gure gizartearen maxima: aurrerapena.

Catherine baikorra da, eta haren aita, oso gizon jator eta jostalaria –agian, haur batek irudika dezakeen aitarik jostalariena–, bere haurtxoa tentsio eta estutasun guztietatik aparte darabilkie-na, baina narrazioak bezala, bere erretreta garaia iristen denean hasieran bezala dagoena. Ez da ezer aldatu, «Gloria Hotela» beti han dago, berdin dio New York edota Parisen den.



'Catherine Certitude'

Idazlea: Patrick Modiano. Ilustratzailea: Sempe. Itzultzailea: Juan Luis Zabala. Argitaletxea: Erein.